XEDAPEN OROKORRAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

3136

AGINDUA, 2012ko ekainaren 6koa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena; honen bitartez, Hiri Merkataritzaren Lankidetza, Dinamizazio eta Lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako laguntzen programa arautzen duen 2010eko uztailaren 28ko Agindua aldatzen da bigarren aldiz.

Hirugarren sektoreko estrategiak udalerri edo eskualde mailan bultzatzea eta aurrera eramatea lankidetza-prozesu publiko-pribatuak oinarritzat hartuz, 2015eko Euskal Merkataritzaren Egokitzapen Planaren hirugarren lan-ardatzaren oinarri nagusia da.

Aurreko ekitaldietan leku handia eman zaio merkataritza-ardatzak berreskuratzeari eta hobetzeari, eta helburu hori neurri handi batean egoki bete delakoan gaude.

2012. urtean zehar, bira berri bat emateko asmoa dago tokiko merkatarien elkarteekin hitzarmena duten udalen partaidetzaz, balio erantsiko zerbitzuak bultzatuz Euskadiko merkataritza-inguruetan erosketarako pizgarri eta itxaropen handiagoak sortzeko.

Helburu nagusia da erosketak erraztea gero eta inguru erakargarriagotan, abantailak eskaintzen dituztenak, kontsumitzaileen arreta eta fideltasuna hartzeko gai direnak.

Horren arabera, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Erakunde onuradunei buruzko 5. artikuluaren 2. paragrafoa aldatzea eta honela idaztea:

2.– Merkatarien elkarte bat baino gehiago dituzten udalerrien kasuan, udalerriko hiri-merkataritzako plataformak –edo, halakorik ez badago, udalerriko enpresa-erakunde guztiek– adostasunez erabakiko du, atxikitako dokumentuan, nork ordezkatuko dituen –udalerri bakoitzeko ordezkaritza bat–, eta elkartearen ordezkari bat izendatu beharko dute. Ordezkari horrek ahalorde askietsia izango du laguntzaren onuradun izanik dagozkion betebeharrak betetzeko. Horretaz gain, elkarte bakoitzaren proiektua gauzatzeari dagokionez, izandako parte-hartze maila eta horietako bakoitzari dagokion zenbatekoa zehaztuko ditu laguntza ezartze aldera.

Bigarren artikulua.– 7. artikulua («laguntzen zenbatekoa») aldatzea eta honela idaztea:

1.– Diruz lagun daitezkeen inbertsioen egikaritzapen materialaren kostuaren % 80ra iritsi ahalko da emandako laguntzen zenbatekoa honako artikuluotan jasotako ekintzetarako laguntzen kasuan: 6.1.– Azterlanak; 6.2.h.– Zerbitzu osagarrien sustapena; eta 6.2.j.– Txikizkako udal-merkatuetako inbertsioak; eta inbertsioen egikaritzapen materialaren kostuaren % 50era 6. artikuluan jasotako gainerako ekintzetarako.

2.– Nolanahi ere, deialdi eta udalerri bakoitzeko emango den gehieneko diru-laguntza honela kalkulatuko da: udalerriaren biztanle kopuruaren araberako diru-laguntza, bider udalerri horren merkataritza-dentsitatearen koefizientea:

Biztanleria-tarteak	Tartearen diru-laguntza
0 – 499	4.500 euro
500 – 999	9.000 euro
1.000 - 1.999	15.000 euro
2.000 - 4.999	20.000 euro
5.000 - 9.999	30.000 euro
10.000 - 14.999	45.000 euro
15.000 - 29.999	72.500 euro
30.000 - 59.999	87.500 euro
60.000 - 99.999	115.000 euro
100.000 - 249.999	230.000 euro
249.999tik gora	345.000 euro

Agindu honi dagokionez, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

a) Urteko deialdi bakoitzaren urtarrilaren 1ean Eustatek argitaratua duen azken merkataritza- eta biztanleria-errolda erabiliko da erreferentzia gisa.

b) Udalerri bateko merkataritza-dentsitatea: Txikizkako saltoki kopurua x 1.000/biztanle kopurua.

c) Merkataritza-dentsitatearen koefizientea: Udalerriaren merkataritza-dentsitatea/EAEko merkataritza-dentsitatea.

3.– Deialdia egiten duen Ebazpen bakoitzean honako hauek jakinaraziko dira: udalerri bakoitzeko biztanleria-datuak, merkataritza-establezimenduak eta merkataritza-dentsitatea, baita EAEko merkataritza-dentsitatea ere.

4.– Udalerrien mankomunitate bidez eginiko 6.3 artikuluan bilduriko jardunen kasuan, mankomunitatea osatzen duten udalerrietako biztanlerien baturari dagokion baliokidea ezarriko da gehieneko zenbateko gisa, azterlanak egiteko kasurako izan ezik, 30.000 euro izango baita kasu horretan.

5.– Diruz lagunduko diren eskabideen gehieneko zenbatekoa ez bada deialdia egiten duen Ebazpenean aurreikusitako baldintza ekonomiko guztiak ordaintzeko adinakoa, eta 6. artikuluaren 2. eta 3. paragrafoetan jasotako ekintzetarako, gehiegizkoak hainbanatu egingo dira diruz laguntzeko moduko gisa onartu diren inbertsioen zenbatekoaren % 10eko gehieneko diru-laguntza lortu arte. Kasu horretan, ebazpen osagarri bat emango da, eta bertan zirkunstantzia hori eta diru-laguntzaren guztizko zenbatekoa jasoko dira. Halaber, 17. artikuluan jasotakoaren arabera, emandako zenbateko gehigarriaren % 70a ordainduko da.

Hirugarren artikulua.– Laguntzen zenbatekoari buruzko 10. artikuluaren 2. iparagrafoa aldatzea eta honela idaztea:

2.– Nolanahi ere, deialdi bakoitzeko udalerri guztientzat emango den gehieneko diru-laguntza honela kalkulatuko da: merkataritza-tarte bakoitzeko diru-laguntza bider udalerriko merkataritza-dentsitatearen koefizientea:

Saltoki kopuruaren tartea	Tartearen diru-laguntza
50 baino gutxiago	6.000 euro
50 – 99	10.000 euro
100 – 199	15.000 euro
200 – 399	20.000 euro
400 – 999	30.000 euro
1.000 – 1.999	50.000 euro
2.000 - 3.499	75.000 euro
3.500tik gora	100.000 euro

Agindu honi dagokionez, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

a) Urteko deialdi bakoitzaren urtarrilaren 1ean Eustatek argitaratua duen azken merkataritza- eta biztanleria-errolda erabiliko da erreferentzia gisa.

b) Udalerri bateko merkataritza-dentsitatea: Txikizkako saltoki kopurua x 1.000/biztanle kopurua.

c) Merkataritza-dentsitatearen koefizientea: Udalerriaren merkataritza-dentsitatea/EAEko merkataritza-dentsitatea.

Laugarren artikulua.– Laguntza emateko ebazpenari buruzko 15. artikuluaren 1. paragrafoa aldatzea eta honela idaztea:

1.– Merkataritzako zuzendariak, aurreko artikuluan adierazitako proposamena aztertu ondoren, eskabideak ordena jakin bati jarraiki ebatziko ditu, espedientea noiz osatu den kontuan izanik alegia, agindu honen 2. artikuluko laugarren idatzi-zatian xedatutakoaren arabera. Horretarako, sei hilabeteko epea izango du, eskabidea aurkeztu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Bigarrena.– Agindu honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, Agindu hau argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 6a.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.